

GARRAIOBIDEAK

NOLA ERREKLAMATU



LURREKO garraioa



Kontratua ez betetzea

Garraioko Arbitraje Batzordeetara jo behar duzu, betiere garraioaren jatorria edo helmuga edo kontratua sinatzen den lekua batzorde horiek eskumena duten lurraldean edo lurraldeetan kokatuta baldin badago.

Garraioei dagozkien erreklamazioak ebazten dituzte (errepidekoak, trenbidekoak...); hirikoak, hiriartekoak edo nazioartekoak; salgaienak edo bidaiarienak.

Zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kekek

- ◆ **Hiriko garraioan:** Udala da eskuduna.
- ◆ **Hiriarteko garraioa:**
 - Euskadin (Adb. Bilbao – Donostia / San Sebastián): dagokion Foru Aldundian.
 - Autonomi Erkidego ezberdinetan (Adb. Vitoria–Gasteiz – Madril): Sustapen Ministeritzan.

Arabako Garraioen Arbitraje Batzordea

- 📍 Probintzia plaza 4 Barne–Behea 01001 Vitoria–Gasteiz
- ☎ 945 18 18 18 (52276 edo 52085 luzapena)
- @ junta_arbitral@araba.eus

Bizkaiko Garraioen Arbitraje Batzordea

- 📍 Iparraguirre 21 48009 Bilbao
- ☎ 94 608 35 06 – 94 608 28 84
- @ juntaarbitral@bizkaia.eus

Gipuzkoako Garraioen Arbitraje Batzordea

Zehazteke.

AIREKO garraioa



Zein kasutan?

- Hegazkineratzea ukatzea txartelen gainerreserba dela–eta (overbooking).
- Hegaldiak bertan behera uztea edo atzerapenak.

Bidaia konbinatua edo opor–eskaintza (ostatua eta bestelako zerbitzu turistikoak dituen)

- ◆ Bidaia–agentzia edo tour–operadorearen aurrean.
- ◆ Ez baduzu erantzunik jasotzen, Eusko Jaurlaritzaren Turismo Zuzendaritzara jo behar duzu.

Soilik garraioa

- ◆ Aire–konpainiaren aurrean. Ahal baduzu, aireportutik alde egin aurretik.

Garrantzitsua: tikek edo fakturen kopiak erantsi eta gorde originalak beti.

Ez baduzu erantzunik jasotzen, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentzian (AES) erreklamazioa aurkeztu. Kasu hauetan egin dezakezu:

- Espainian jatorria duten hegaldiaren kasuan.
- Europar Batasuneko ez den herrialde batetik irten eta helmuga Espainia denean, betiere Europar Batasuneko konpainia bada.

Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentzia (AES)

- 🌐 www.seguridadaerea.gob.es
- ☎ 91 396 80 00 – 91 396 82 10
- @ sav.aesa@seguridad.es